

**Ariketa hau test motako jarduera bat da.  
Galdera bakoitzak 3 erantzun posible ditu, eta  
bakarra da zuzena.**

1. Laneko arriskuen prebentzioak honetarako balio du:

- a) Lanaren ondoriozko istripuak eta gaixotasunak saihesteko.
- b) Enpresek kutsaduran duten eragin negatiboa murrizteko.
- c) Legearen aurka doazen ekintzak gutxitzen saiatzeko, adibidez, lapurretak.

2. Enpresak ezin baditu laneko arriskuak erabat saihestu:

- a) Langileak informatu behar ditu.
- b) Ez ikusiarena egin behar du.
- c) Ebaluatu egin behar ditu, ahalik eta gehien murrizteko.

3. Zeri deitzen zaio NBE?

- a) Norberak lanean bere osasuna babesteko dituen ekipamenduei.
- b) Enpresak langileak babesteko diseinatzen dituen planei.
- c) Arriskuen babeserako Europako ekipamenduei.

4. Elementu hauetatik, zein da norbera babesteko bitarteko bat?

a) Labana bat.

b) Oin-punta sendotutako zapata bat.

c) Poltsa bat.

5. Enpresaburuak honako hauen berri eman eta kontsultatu behar die langileei :

a) Segurtasunerako eta osasunerako arriskuak.

b) Babes- eta prebentzio-neurriak eta -jarduerak, larrialdi-neurriak eta lehen sorospenak.

c) "A" zein "B" aukerak zuzenak dira.

6. Laneko instalazioetan arriskua dagoenean pertsonak leku seguruan jartzea:

a) Zaintzea.

b) Ebakutzeara.

c) Atxikitzea.

7. Enpresak langileen osasuna zaindu behar du horretarako  
\_\_\_\_\_ osasun probak egiten dira:

- a) Nahitaezko
- b) Borondatezko
- c) Enpresaren araberako

8. Noiz egiten dira proba medikoak?

- a) Egunero.
- b) Hilabete guztietan.
- c) Lanaren hasieran eta ondoren epe jakin bakoitzean: 6 hilabete, urtebete, zenbait urte...

9. Legearen arabera, zer da lan-arrisku larria eta berehalakoa?

- a) Langile batek lanetik eratorritako kalte larria jasotzea.
- b) Langileen osasunean kalteak eragin ditzakeen arrisku oso probablea.
- c) Langileen zaintza eta kontrolerako-neurrien multzoa.

10. Langileak arrisku larri eta berehalakoan daudenean edo egon daitezkeenean:

a) Nahi dutenean eten dezakete jarduera.

b) Enpresaburuak beharrezko jarraibideak eman behar ditu pertsonak lana modu seguruan gelditu eta utzi ahal izan dezaten.

c) Aurrekoetatik bat ere ez.

11. Langileen haurdunaldia edo edoskitzea arriskuan egonez gero, enpresaburuak neurri hauek hartuko ditu, besteak beste:

a) Kontratua etetea.

b) Baldintzak egokitzea.

c) Enpresaz aldatzea.

12. Langilearen betebeharra da neurri hauek betetzea:

a) Makinen segurtasun-mekanismoak ondo erabiltzea.

b) Proba medikoak egitea.

c) Aurrekoetatik bat ere ez.

13. Noiz ari gara kargak manipulatzan?

a) Kargak 3 kilo baino gehiago pisatzen duenean.

b) 4 kilo baino gehiago pisatzen duenean.

c) 5 kilo baino gehiago pisatzen duenean.

14. Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legearen arabera, babes-baldintza espezifikoak ezartzen dira:

a) Hamasei urtetik beherakoentzat.

b) Beren ezaugarri pertsonalak direla eta, lanetik eratorritako arriskuekiko bereziki sentikorrak direnentzat.

c) Aldi baterako laneko enpresek kontratatutako langileentzat.

15. Legeak Bistaratzeko-pantailak erabiltzen dituen langileentzat jotzen du:

a) Pantailen aurrean, eguneko 4 ordu edo astean 15 ordu baino gutxiago lan egiten duen pertsona.

b) Pantailen aurrean, 3 ordu baino gehiago egunean edo 15 ordu astean lan egiten duen pertsona.

c) Pantailen aurrean, 4 ordu baino gehiago eguneko edo 20 ordu asteko lan egiten duen pertsona.